De acuerdo con el artículo 9 de la Norma Foral 4/2019, se encuentran exentas del Impuesto sobre Sociedades las rentas derivadas de las explotaciones económicas que desarrollan el objeto social o finalidad específica de la Fundación, así como las que tengan un carácter meramente auxiliar o complementario de las anteriores, o bien escasa relevancia.

Por otra parte, la norma determina la exención para las rentas derivadas de ingresos y cuotas satisfechas por colaboradores o benefactores y por subvenciones destinadas a financiar actividades exentas.

Del mismo modo, estarán exentas las rentas procedentes del patrimonio mobiliario e inmobiliario de la Fundación, así como las derivadas de adquisiciones o de transmisiones, por cualquier título, de bienes y derechos.

Como consecuencia de lo anterior, la Base Imponible del Impuesto sobre Sociedades correspondiente a los ejercicios 2020 y 2019, es nula.

12. Ingresos y gastos

A continuación, se desglosa el contenido de los epígrafes de las cuentas de resultados abreviadas correspondientes a los ejercicios anuales terminados el 31 de diciembre de 2020 y 2019.

12.1 Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio

El desglose para los ejercicios 2020 y 2019 es el siguiente:

Euros	2020	2019
Subvenciones procedentes de la Administración pública	93.120	93.120
- Gobierno Vasco	80.000	80.000
- Ayuntamiento de Gernika-Lumo	13.120	13.120
Total	93.120	93.120

12.2 Ayudas monetarias

Este epígrafe de la cuenta de resultados abreviada del ejercicio 2020 y 2019 adjunta recoge la aportación realizada por la Fundación para el desarrollo del programa de actuación presentado por la Asociación de Investigación por la Paz Gemika Gogoratz.

17

13. Actividad de la Fundación. Aplicación de elementos patrimoniales a fines propios. Gastos de administración


13.1 Actividad de la Fundación

La Dirección considera que el único programa desarrollado por la Fundación es el correspondiente a la realización de las actividades necesarias para la consecución del objeto social.

Los recursos económicos obtenidos por la Fundación durante el ejercicio 2020, con los cuales se ha financiado la actividad principal de la Fundación, han sido los siguientes:



18



2020		
INGRESOS	Previsto	Realizado
Subvenciones del sector público	93.120	93.120
TOTAL INGRESOS OBTENIDOS	93.120	93.120

Por su parte, los recursos económicos que han sido empleados durante el ejercicio 2020 para la realización de la actividad principal de la Fundación, han sido los siguientes:

2020		
GASTOS	Importe	
	Previsto	Realizado
Ayudas monetarias	93.120	93.120
TOTAL	93.120	93.120

El número de beneficiarios o usuarios de la actividad realizada por la Fundación durante el ejercicio 2020 ha ascendido a:

2020		
TIPO	Número	
	Previsto	Realizado
Personas físicas	1.350	1.350
TOTAL	1.350	1.350

13.2 Aplicación de elementos patrimoniales a fines propios

De acuerdo con el artículo 29.2 de la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, la Fundación deberá destinar, al menos, el 70% de los ingresos de la cuenta de resultados abreviada de la Fundación, obtenidos por todos los conceptos, deducidos los gastos en los que hayan incurrido para la obtención de los ingresos, excepto los referentes al cumplimiento de sus fines fundacionales, a la realización de sus fines fundacionales. El plazo para el cumplimiento de esta obligación será el comprendido entre el inicio del ejercicio en el que se hayan obtenido los respectivos resultados e ingresos y los tres años siguientes al cierre de dicho ejercicio.

Para la determinación de las rentas e ingresos netos, el Patronato aplica los criterios fijados en el artículo 21 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado.

A estos efectos, para los ejercicios 2020 y 2019, las rentas e ingresos netos ascienden a 93.120 euros en ambas fechas, calculados conforme se detalla a continuación:

	Euros	
	2020	2019
Ingresos brutos computables		
Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio	93.120	93.120
Excedente neto	93.120	93.120

19

Los fondos destinados en los ejercicios 2020 y 2019 al cumplimiento de los fines fundacionales han ascendido a 93.120 euros en ambas fechas, según el detalle siguiente:

	Euros	
	2020	2019
Ayudas monetarias	93.120	93.120

La Fundación destina la totalidad de los ingresos obtenidos a la realización de sus fines fundacionales.

13.3 Gastos de administración

Según los datos declarados por la Fundación, no existen gastos de administración específicos para los ejercicios 2020 y 2019.

14. Hechos posteriores al cierre

Desde el cierre del ejercicio 2020 hasta la fecha de formulación por el Patronato de la Fundación de estas cuentas anuales abreviadas, no se ha producido ni se ha tenido conocimiento de ningún hecho significativo digno de mención.

15. Saldos y operaciones con partes vinculadas

15.1 Saldos con partes vinculadas

Al 31 de diciembre de 2020 y 2019, el detalle de los saldos deudores y acreedores con entidades vinculadas es el siguiente:

	Euros			
	2020		2019	
	Deudor	Acreedor	Deudor	Acreedor
Gobierno Vasco	40.000	-	40.000	-
Ayuntamiento Gernika	13.120			
Asociación Gernika Gogoratz	-	-53.120	-	-40.000

15.2 Operaciones con partes vinculadas

El detalle de las principales transacciones realizadas durante los ejercicios 2020 y 2019 por la Fundación con entidades vinculadas es como sigue:

	Euros			
	2020		2019	
	Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio	Ayudas monetarias	Subvenciones imputadas al excedente del ejercicio	Ayudas monetarias
Gobierno Vasco	80.000	-	80.000	-
Ayuntamiento de Gernika-Lumo	13.120	-	13.120	-
Asociación Gernika Gogoratz	-	-93.120	-	-93.120
TOTAL	93.120	-93.120	93.120	-93.120

20

15.3 Retribuciones a los Miembros del Patronato

Durante los ejercicios 2020 y 2019, las labores de Alta Dirección son asumidas por el Patronato y no han percibido ni devengado importe alguno en concepto de sueldos y salarios, dietas ni otras remuneraciones. Asimismo, al 31 de diciembre de 2020 y 2019, no existían préstamos o créditos concedidos, ni obligaciones contraídas en materia de pensiones o seguros de vida respecto a dichos miembros.

16. Otra información

16.1 Cambios en los Órganos de gobierno

Durante el ejercicio 2020 se han producido variaciones en el Patronato de la Fundación entrando a formar parte del mismo, Itxaso Bengoetxea Larrinaga en sustitución de Irune Ondarza por su fallecimiento el 8 de septiembre de 2020.


Durante el ejercicio 2019 se produjeron variaciones en el Patronato de la Fundación entrando a formar parte del mismo D.Jokin Garatea Gerrikagoitia y D. Gorka Urrutia en sustitución de D. Eduardo Ruiz de Vieytes, en representación de la Universidad de Deusto.

16.2 Garantías comprometidas con terceros y otros pasivos contingentes

Al 31 de diciembre de 2020 y 2019 la Fundación no tiene concedidos avales de entidades financieras o ante terceros.

17. Información sobre los Aplazamientos de Pago

De acuerdo con lo establecido en la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, y en la Resolución de 29 de enero de 2016 del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas (ICAC), sobre la información a incorporar en la memoria de las cuentas anuales abreviadas en relación con el periodo medio de pago a proveedores en operaciones comerciales, al cierre de los ejercicios 2020 y 2019 no existen saldos pendientes de pago a los proveedores que al cierre de dichos ejercicios acumulen aplazamiento superior al plazo legal de pago.




A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Miguel", is positioned at the bottom left. To its right is a large, stylized blue ink mark or signature that includes the number "21".

FUNDACIÓN GERNIKA GOGORATUZ

GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA

Memoria de las Cuentas Anuales Abreviadas

Firmado:




D. José María Gorroño Etxebarria
(Presidente del Patronato)

Dña. María Oianguren Idigoras
(Directora del Centro de Investigación por
la Paz Gernika Gogoratuz)



**FUNDACIÓN GERNIKA GOGORATUZ
GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA**

**2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Urteko Kontu
Laburtuak**




A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Miguel". To the right of the signature is a stylized blue mark resembling a checkmark or a signature, with the number "1" written next to it.

AURKIBIDEA

BALANTZE LABURTUA	Orrialdea
EMAITZA-KONTU LABURTUA	3
URTEKO KONTUEN MEMORIA LABURTUA	4
	5-22

Muñoz


2

GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA

Balantze laburtuak, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n

(Eurotan adierazita)

AKTIBOA	Oharrak	2019	2018
AKTIBO EZ-ARRUNTA		55.220	55.220
Ibilgetu materiala	6, 7	55.220	55.220
AKTIBO ARRUNTA		40.209	40.209
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	8	40.000	40.000
Administrazio Publikoak-Lotutako entitateak		40.000	40.000
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk		209	209
Diruzaintza		209	209
AKTIBOA GUZTIRA		95.429	95.429
ONDARE GARBIA	9	55.429	55.429
Funts propioak		55.429	55.429
Fundazioaren zuzkidura	9.1	80.052	80.052
Erreserbak	9.2	-23.736	-23.736
Aurreko ekitaldietako soberakinak		-887	-887
Ekitaldiko soberakina		-	-
PASIBO ARRUNTA		53.120	40.000
Hartzekodun onuradunak-Lotutako entitateak	10	53.120	40.000
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		95.429	95.429

GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkien emaitza-kontu laburtuak

(Eurotan adierazita)

	Oharrak	2019	2018
A) Ekitaldiko soberakina			
1. Jarduera propioaren sarrerak		93.120	93.120
d) Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak	12.1	93.120	93.120
3. Laguntzek eta bestelakoek eragindako gastuak		-93.120	-93.120
a) Dirulaguntzak	12.2	-93.120	-93.120
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA		-	-
A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA		-	-
A.3) ZERGA-AURREKO SOBERAKINA		-	-
A.4) Ekitaldiko soberakinean aitortutako ondare garbiaren aldakuntza		-	-
B.1) Ondare garbian zuzenean aitortutako sarrera eta gastuengatikoa ondare garbiaren aldakuntza		-	-
C.1) Ekitaldiko soberakinari egindako birsailkapenengatikoa ondare garbiaren aldakuntza		-	-
D) Zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrera eta gastuengatikoa ondare garbiaren aldakuntzak		-	-
I) GUZTIRAKO EMAITZA, ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA EKITALDIAN		-	-

Mug
4

GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA

2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagokion memoria laburtua

(Eurotan adierazita)

1. Fundazioaren jarduera

Gernika Gogoratuz Iraskundeak (aurrerantzean, Fundazioa) Gernika-Lumon (Bizkaia) du fundazio-helbidea eta egoitza, Foruen plaza z/g helbidean. 1994ko abenduaren 15ean eratu zuen Fundazioa Gernika Gogoratuz Elkartea, irabazi asmorik gabeko fundazio kultural pribatu gisa, izaera iraunkorreza eta iraupen mugagabez.

Fundazioak berezko nortasun juridikoa du, eta bere Estatutuen arabera jarduten du. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeak (ekainaren 2ko 9/2016) eta uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena) xedatutako araudiaren mende dago.

Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasota dago, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 1994ko irailaren 25eko Aginduaren bidez.

Fundazioaren xeda da gogoeta zientifikotik sortutako edo hark babestutako eta Gernika hiriarekin eta/edo sinboloarekin lotutako ekarpenak egitea, bake emantzipatzalea eta bidezkoa lortze aldera munduan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan; eta, horrela, Eusko Legebiltzarra 1987ko apirilaren 10ean onartutako Legez besteko Proposamena betetzea, Gernikan Bakearen aldeko ikerketa-zentro bat sortzea erabaki zuena, haren bonbardaketaren oroitzapen historikoaren sinboloa iraunarazte aldera.

1987ko azaroaren 6an, Gernika Gogoratuz Elkartea (aurrerantzean, Elkartea) eratu zen. Haren xede nagusia da gogoeta zientifikoz laguntzea, bake emantzipatzalea eta bidezkoa lortzeko munduan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan. Elkarte horren babesean, “zentro” bat sortu zen, eta, hala, Eusko Legebiltzarra 1987ko apirilaren 23ko ohiko osoko bilkuraren hartutako erabakia bete zen, Gernikan Bakearen aldeko ikerketa-zentro bat sortzea, alegia, haren bonbardaketaren oroitzapen historikoaren sinboloa iraunarazte aldera. Zazpi urte geroago, 1994ko abenduaren 15ean, Gernika Gogoratuz Iraskundeak eratu zen; horrek bere baitan hartzen du Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa (aurrerantzean, Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa).

Bakearen aldeko Ikerketa Zentroak bakearen eraikuntzaren esparruan lan egiten du, ikerketaren, prestakuntzaren, sensibilizazioaren eta parte-hartze sozialaren alorretan, lan-sareak sendotzeko, eta Gernika bakearen aldeko mundu-mailako faktore izaten laguntzeko.

Bakearen aldeko Ikerketa Zentroak Fundazioaren babesia du, eta Gernika Gogoratuz Elkartea kudeatzen du zentroaren jarduera, haren independentzia ziurtatuz.

Mug

5

Fundazioaren hasierako zuzkidura Gernika Gogoratuz Elkartea 1994ko abenduaren 15ean, eratu zen egunean (9. Oharra), egindako diruz bestelako ondare-ekarpena izan zen.

Fundazioaren Patronatua, haren gobernu- eta ordezkaritza-organoa, honako hauek osatuta dago: Gernika-Lumoko Udaleko bi ordezkarik, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusiko bi ordezkarik, Deustuko Unibertsitateko ordezkari batek eta Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Elkarteko hiru ordezkarik.

Fundazioaren jarduera propioak eragindako sarrerak Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusiak eta Gernika-Lumoko Udalak Bakearen aldeko Ikerketa Zentroaren sostengurako zuzenean emandako dirulaguntzetatik datozen funtsean.

Gernika Gogoratuz Fundazioaren eta Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Elkartearren arteko hitzarmena, Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroaren kudeaketarako

Fundazioak hitzarmen bat du sinatura Gernika Gogoratuz Elkartarekin, bien arteko lankidetzarako tresna egonkor bat finkatzeko, Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa kudeatu eta garatu ahal izateko, bien xeden arabera.

Lankidetza-esparru hori, bi alderdiek une bakoitzean adostu ditzaketen beste bide batzuen kaltetan izan gabe, Zentroak egingo dituen zenbait jardueratan zehaztuko da, honako xede honekin: munduan eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan bake emantzipatzalea eta bidezkoa lortzea sustatzea eta horretan laguntzea.

Zehazkiago esanda, honako hauekin lotutako proiektuak sustatuko ditu Zentroak: dokumentazioen eta argitalpenen zerbitzuarekin, webgunearekin, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin, bakearen kulturarekin eta gatazken tratamenduarekin, komunitate-garapenarekin eta kulturaren eta bakearen aldeko nazioarteko jardunaldiekin, bai eta Fundazioaren Patronatuarekin adostutako beste edozein gairekin lotutakoak ere.


Elkartea arduratuko da Zentroaren kudeaketaz, haren jarduerarekin lotutako gai guztietan, eta orain arte esandakoa oinarri hartuta. Dena den, Fundazioak eta Elkarteak beren ahalmenei, egitekoei eta konpromisoei eutsiko diete, beren estatutuen eta hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera.

Elkartea arduratzen denez Zentroaren kudeaketaz, ulertzen da hark emango dituela zentroak funtzionatzeko behar dituen langileak; Elkartearren mende egongo dira, eta ezin izango dute inolako loturariik sortu Fundazioarekin.

Zentroak bere zuzendaritza propioa izango du. Fundazioak aukeratuko du Zentroaren arduraduna, Elkartarekin adostuta, eta kontuan hartuta Gernika Gogoratuz Elkartearren filosofiarri jarraikiz bi alderdiak garatzen ari diren Zentroaren proiektua.

Hitzarmen honen xede den lankidetzaren funsezko ardatz gisa, bi alderdiek adostu dute Elkarteak Zentroaren jarduera-programa bat proposatuko diola urtero Fundazioari, lehen aipatutako helburuekin eta projektuekin lotutakoa. Fundazioaren Patronatuak baloratuko

Miguel

6 

du proposamena, eta, onartutakoan, behar diren baliabide ekonomikoak esleituko dizkio, guztia gauzatzeko.

Elkartearren proposamena Fundazioari jakinarazitako eskuragarritasun-horniduretara egokituta egongo da kostuan. Horretarako, proposatutako jardueren aurrekontu xehatua sartuko du jarduera-programan Elkarteak; aurrekontuak proposamen bakoitzaren gastuak eta sarrerak jasoko ditu.

Elkarteak dagokion ekitaldia hasi aurreko azken hiruhilekoan aurkeztu beharko dio urteko jarduera-programa Fundazioari.

Fundazioak Elkarteari emango dion finantziazioa bi kontzeptutan banatuko da. Lehenengo kontzeptua Zentroaren kudeaketak Elkarteari eragiten dizkion mantentze-gastu arruntetarako erabiliko da; Zetrona atxikitako langileak eta funtzionamendu-gastu arruntak izango dira. Bigarren kontzeptua Fundazioak onartutako urteko jarduera-programetarako finantziazio espezifikoa izango da.

Zentroaren mantentze arrunterako finantziazioa Fundazioaren eta Elkartearen artean adostuko da. Horri buruzko akordioek lau urteko iraupena izango dute, Zentroaren egonkortasuna bermatze aldera.

Fundazioak finantzatutako jardueretan, “Gernika Gogoratuz Ikerketa Zentroa, Gernika Gogoratuz Fundazioa” legenda agertu beharko da beti. Fundazioak Zentroaren jarduerak finantzatzeko lortzen dituen dirulaguntzei dagokienez, Fundazioak Elkarteari jakinaraziko dio zer baldintzatan eman den laguntza, laguntzak emateko eskakizunak bete daitezen.

Hitzarmen hau iraupen mugagabez finkatu da, eta bi alderdietako edozeinek salatu dezake. Hitzarmenaren salaketak, edonola ere, salaketa egin den ekitaldiko jarduera-plana bukatutakoan izango ditu ondorioak. Azalpen osagarri guztiak haren baldintzetan egingo dira, eta ez dute Akordioaren salaketaren eraginik jasango.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta Zentroaren urteroko jarduera-programak garatzen diren bitartean, bi alderdiek konpromisoa hartu dute beren interesen parekoak izan ditzaketen Euskal Herriko Unibertsitateko arloekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzen jarduteko.

Halaber, Zentroaren zerbitzuak erabiltzeko aukera zabala emango zaie antzeko helburuak dituzten erakunde publikoetako eta pribatuetako kideei eta hori egiaztatzen duten ikerlariei.

2. Urteko Kontu Laburtuak aurkezteko oinarriak

2.1 Irudi zehatza

Fundazioari aplikagarri zaion finantza-informazioari buruzko arau-esparrua honako hauetan jasotakoa da:

- a) 9/2016 Legea, ekainaren 2koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa eta 115/2019 Dekretua, uztailaren 23koan, Euskal Autonomia

Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.

- b) Irabazi asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Plan Orokorra, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Instittuak (ICAC) onartua 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez.
- c) Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Instittuak (ICAC) Kontabilitate Plan Orokorraren eta haren arau osagarrien garapenean onartutako eta derrigorrean bete beharreko arauak.
- d) Aplikagarri den gainerako Espainiako kontabilitate-araudia.

2019 ekitaldiko urteko kontu laburtuak Fundazioaren kontabilitate-erregistroetan oinarritura prestatu dira, eta aplikagarri den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat aurkezten dira, eta, zehazki, hor jasotako kontabilitate-printzipioekin eta -irizpideekin bat, Fundazioaren ondasunaren, finantza-egoeraren eta haren ondare garbian eragindako aldakuntzen irudi zehatza emate aldera, bai eta data horretan bukatutako ekitaldian zehar egindako jarduerarena ere.

Fundazioaren Patronatuak onartu beharko ditu urteko kontu laburtuak, eta uste da inolako aldaketarik gabe onartuko direla.

Urteko kontu laburtuetan sartutako zifrak eurotan adierazita daude, Fundazioaren aurkezpenetarako moneta funtzionala baita.

2.2 Derrigorrezkoak ez diren kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu laburtu hauen lanketan aplikatutako kontabilitate-printzipioak eta -irizpideak memoria laburtuaren 4. Oharrean jasotakoak dira. Printzipio eta irizpide horiek bat datoz derrigorrean aplikatu beharrekoekin, ez baita derrigorrezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik edo -irizpiderik aplikatu.

2.3 Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

2020 ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuen prestaketan, Fundazioaren Patronatuak egindako balorazioak eta zenbatespenak erabili dira, haietan erregistratutako zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso kuantifikatzeko. Zenbatespen horiek esperientzia historikoan eta egungo egoeraren arabera arrazoizkotzat jotzen diren beste faktore batzuetan oinarritura daude.

Ekitaldia ixteko unean, ez dago etorkizunari buruzko suposizio giltzarrik, ez eta ziurgabetasunaren estimazioari buruzko datu garrantzitsurik ere, hurrengo ekitaldian aktiboen eta pasiboen balioetan aldaketa esanguratsuak eragiteko arrisku handia dakarrenik.

Ez da gertatu aldaketa esanguratsurik kontabilitate-estimazioetan, egungo ekitaldiari eragin dionik edo hurrengo ekitaldiei eragitea espero denik.

2.4 Informazioaren alderaketa

2020ko urteko kontu laburtuetan, alderaketa-xedezez, balantze laburtuko eta emaitza-kontu laburtuko kontu-sail bakoitzarekin batera, 2020ko zifrez gainera, aurreko

ekitaldikoak ere jaso dira. Halaber, 2020 ekitaldiari buruzko memoria laburtu honetan jasotako informazioaz gainera, 2019 ekitaldiko informazioa ere jaso da, alderatu ahal izateko.

2.5 Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

2020an zehar, ez da aldaketarik egin kontabilitate-irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutakoekin alderatuta.

2.6 Akatsak zuzentzea

2020 ekitaldiko urteko kontu laburtuek ez dute jaso ekitaldian hautemandako akatsen ondoriozko doikuntzarik.

2.7 Garrantzi erlatiboa

Memoria laburtu honetan finantza-egoeren edo beste gai batzuen kontu-sailei buruz zer informazio zehaztu behar den erabakitzeraoan, Fundazioak kontuan hartu du 2020 ekitaldiko urteko kontu laburtuekiko garrantzi erlatiboa.

3. Soberakina aplikatzea

Zuzenean ondare garbiari egotxitako soberakinak ez dira banatu, ez zuzenean ez zeharka.

2020 eta 2019 ekitaldietan zehar, emaitza nulua izan da; hortaz, ez da soberakinik egon.

4. Erregistro- eta balorazio-arauak

Fundazioak honako kontabilitate-irizpide hauek jarraitu ditu urteko kontu laburtu hauek egitean:


4.1 Ibilgetu ukiezina

Oro har, ibilgetu ukiezina erosketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera baloratzen da hasieran. Gero, metatutako amortizazioagatik dagokion kostu-balio txikituan baloratzen da, haren bizitza baliagarriaren arabera kalkulatuta, eta, hala badagokio, aitortutako narriaduragatiko balorazio-zuzenketen zenbateko metatuan.

Ibilgetu ukiezinak bizitza baliagarri zehaztuko aktiboak dira, eta, beraz, amortizazioaren xede dira.

Erabilera rako lagatako aktiboen gaineko eskubideak

Fundazioaren bulegoak Gernikako Artekale kaleko 1. zenbakiko 1. solairuan daude, Bizkaiko Foru Aldundiarena den eraikin batean; inolako kontraprestaziorik gabe erabiltzen dira. Bada, eraikin horren gaineko erabilera-eskubideak haien salmenta-balioaren arabera erregistratuta daude, eta linealki amortizatzen dira hamar urteko tartean.



4.2 Ondare Historikoko ondasunak

Fundazioak ibilgetu materialerako adierazitako irizpideei jarraikiz baloratzen ditu Ondare Historikoko ondasunak.

Liburutegia (honela ulertuta: liburu, idazki eta bestelako material bibliografikoen edo beste bitarteko batzuen bidez kopiatutako multzoak edo bildumak, areto publikoan edo aldi baterako mailegu bidez irakurtzeko eskuragarri daudenak, hezkuntzaren, ikerketaren, kulturaren eta informazioaren zerbitzura) dituen materialen erosketa-prezioaren arabera baloratzen da, gertatutako narriatze-hornidurak kontuan hartuta, hala badagokio.

Ondare Historikoko ondasunak ez dira amortizatzen, baldin eta horien zerbitzu-potenziala oso poliki erabiltzen bada eta haien bizitza erabilgarriak mugagabeak badira, horien funtzionamenduak, erabilerak edo gozamenak narriadurarak eragin gabe.

4.3 Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean jasotako ondasunak erosketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera baloratzen dira hasieran, eta, gero, metatutako amortizazioagatik eta izan daitezkeen narriadura-galerengatik dagokien kostu-balio garbian baloratzen dira.

Ibilgetu materialetako ondasunak berritzeak, hedatzeak edo hobetzeak eragindako kostuak aktiboan sartzen dira, ondasunaren balio handiago gisa, haien ahalmena edo produktibitatea areagotu edo haien bizitza baliagarria luzatu badute; ordezutako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Aktiboen erabilera hobetzen ez duten eta haien bizitza baliagarria luzatzen ez duten mantentze-, zainketa- eta konponketa-lanen kostuak emaitzetara egozten dira, sortzaparen printzipioari jarraikiz, sortu diren ekitaldiko kostu gisa.

Eskudirurik sortzen ez duten ibilgetu materialetako ondasunek errendimendu komertziala sortzea ez bestelako xede bat izaten dute. Esate baterako, aktibo horiek sorrarazten dituzten fluxu ekonomiko sozialak, kolektibitateari mesede egiten dioenak, hau da, haien onura soziala edo zerbitzu-potenziala.

Fundazioak metodo linealari jarraikiz amortizatzen du bere ibilgetu materiala, erosketa-kostua ken hondar-balioa, hala badagokio, estimatutako bizitza baliagarriko urteen artean banatuta.

Aktibo bat besterentzeagatik edo kentzeagatik sortzen den mozkina edo galera honela kalkulatzen da: salmenta-prezioaren eta aktiboen liburueta zenbatekoaren arteko kendura. Emaitza-kontu laburtuan aitortzen da.

Fundazioaren Patronatuaren iritzia da aktiboen kontabilitate-balioak ez duela gainditzen horien balio berreskuragarria, hori 4.4 Oharrean azaldutakoaren arabera kalkulatuta.

Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak aitortzeko irizpideak 4.4 Oharrean jaso dira.

4.4 Ibilgetu materialaren balio-narriadura

Ibilgetu materialeko elementu baten narriaduragatiko galdera gertatzen da haren kontabilitate-balioak haren zenbateko berreskuragarria gainditzen duenean, azken hori honela ulertuta: haren arrazoizko balioaren ken salmenta-kostuen eta erabilera-balioaren arteko zenbateko handiena. Eskudiru-fluxurik eragiten ez duen aktibo baten balio-narriadura zerbitzu aktiborako ahalmenaren galera da, amortizazioak dakarren balio-galera sistematikoaz eta erregularraz bestelakoa. Hortaz, aktiboak ematen duen erabilgarritasunaren murritzeta bati erantzuten dio narriadurak. Indarreko araudiarekin bat, eskudiru-fluxurik sortzen ez duen aktibo baten erabilera-balioa birjarpen-kostuaren erreferentziaren arabera zehatztuko da.

Ondorio horietarako, ekitaldia ixteko unean gutxienez, Fundazioak ebaluatzen du ea badagoen seinalerik adierazten duena ibilgetu materialen bat hondatuta egon daitekeela; hala bada, haren zenbateko berreskuragarria zenbatesten da, dagozkion balorazio-zuzenketak eginez. Ibilgetu materialeko elementuen narriaduragatiko balorazio-zuzenketak, bai eta horien bihurtzea ere, eragin zuten baldintzak izateari utzi diotenean, gastu edo sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, emaitza-kontu laburtuan. Narriaduraren bihurketak bihurketaren datan aitortuta dagoen ibilgetuaren kontabilitate-balioa izango du muga gisa, balioaren narriadurarik gertatu ez bada.

2020 eta 2019 ekitalditan, Fundazioak ez du ibilgetu materialaren narriaduragatiko galerarik erregistratu.

4.5 Jarduera propioagatiko kredituak eta zorrak

- a) Jarduera propioagatiko kredituak: jarduera propioa garatzean onuradunen, erabiltzaileen, babesleen eta afiliatuen aurrean sortzen diren kobrantza-eskubideak dira.
- b) Jarduera propioagatiko zorrak: erakundeak bere helburuak betetzeko bere onuradunei laguntzak eta bestelako esleipenak ematearen ondorioz sortzen diren betebeharrok dira.

Kredituen hasierako eta ondorengo balorazioa.

Babesleek, afiliatuek edo bestelako zordunek emandako kuotek, dohaintzek eta antzeko beste lagunza batzuek, epemuga laburrekoek, kobratzeko eskubidea sortuko dute, eta beren balio nominalaren arabera kontabilizatuko dira. Epemugak aipatutako epea gainditzen badu, egungo balioa hartuko da kontuan. Kredituaren egungo balioaren eta balio nominalaren arteko diferentzia finantza-sarrera gisa erregistratuko da emaitza-kontuan, kostu amortizatuaren irizpidearen arabera.

Jarduera propioaren garapenean zero interes-tasan edo merkatuko interes-tasaren azpitik emandako maileguak arrazoizko balioan kontabilizatuko dira. Arrazoizko balioaren eta emandako zenbatekoaren arteko diferentzia, hasieran, gastu gisa kontabilizatuko da emaitza-kontuan, haren izaeraren arabera. Hasieran aitortu ostean, egindako deskontuaren itzulketa diru-sarrera finantzario gisa kontabilizatuko da emaitza-kontuan.

Ekitaldia ixtean, gutxienez, behar diren balorazio-zuzenketak egin beharko dira, aktibo horietan balio-narriadura gertatu dela frogatzen duen ebidentzia objektiboa baldin badago.

Kredituen hasierako eta ondorengo balorazioa.

Entitateak onuradunei epe laburrerako emandako laguntzengatik eta bestelako esleipenengatik pasibo bat sortuko da haien balio nominalean. Epemugak aipatutako epea gainditzen badu, egungo balioa aitortuko zaie. Kredituaren egungo balioaren eta balio nominalaren arteko differentzia finantza-gastu gisa erregistratuko da emaitza-kontuan, kostu amortizatuaren irizpidearen arabera.

Laguntza hainbat urtetarako ematen bada, modu finko eta ezeztaezinean eta baldintzarik gabe konprometitutako zenbatekoaren balio eguneratuaren arabera erregistratuko da pasiboa. Irizpide bera aplikatuko da laguntzaren luzapena aldizkako ebaluazioen menpe egon beharrean izapide formal edo administratiboen menpe soilik dagoenetan.

Administrazio Publikoak

Administrazio Publikoarekiko saldo zordunak, dirulaguntzen ondorioz Fundazioak dituen eskubide eta betebeharretatik eratorriak, kobrantza-eskubidea sortu arren, ez dira kontratu-harreman batetik sortzen, baizik eta lege-errekerimendu baten edo Administrazio Publikoek egindako sustapen-jardueren ondorio dira; beraz, ez dira aktibo edo pasibo finantzariotzat hartzen.

Egoera-balantzko epigrafe honetan, Eusko Jaurlaritzak Fundazioari emandako dirulaguntzetatik kobraatu gabe dagoen zenbatekoa jasotzen da. Zenbateko hori kostu-balioan jasoko da, izan dezakeen balio-narriadura gutxituta.

4.6 Finantza-aktiboak

Arau hau honako aktibo finantzarioei aplikatuko zaie:

Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk, hau da: erakundearen kutxan gordetako dirua, ageriko banku-gordailuak, eta eskudiru bihur daitezkeen finantza-aktiboak, eskuratzeko unean epemuga hiru hilabete baino gehiagokoa ez zutenak, betiere balio-aldaketarako arrisku nabarmenik ez badago eta erakundearen altxortegia kudeatzeko politika arruntaren parte badira.

4.7 Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Jasotako dirulaguntzak eta Eusko Jaurlaritzak eta Gernika-Lumoko Udalak egindako ekarpenekin lotutakoak haien xede diren programak gauzatzen diren ekitaldiko emaitzetara egozten dira; emaitza-kontu laburtuko jarduera propioagatiko sarrerak (12.1 Oharra) epigrafean erregistratzen dira.

4.8 Mozkinen gaineko zerga

Sozietateen gaineko Zergaren gastua martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren (Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa) arabera kalkulatzen da (11. Oharra).

4.9 Sarrerak eta gastuak

Fundazioaren jarduera propioagatiko sarreretan sartzen dira laguntzaileek egindako ekarpen itzulezinak, ematean zuten jatorrizko zenbatekoz, eta emaitzetara egozten dira sortzapen-irizpidea aplikatuz.

Entitateak egindako gastuak dagokien ekitaldiaren emaitza-kontuan kontabilizatuko dira, finantza-fluxua gertatzen den eguna dena delakoa izanda ere. Bereziki, entitateak ematen dituen laguntzei dagokienez, kontuan hartuko da Fundazioko organo eskudunak noiz onartu, konprometitu edo eman dituen.

4.10 Ingurumen-izaera duten ondare-elementuak

Ingurumen-izaerako aktibotzat jotzen dira Fundazioaren jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak, xede nagusia ingurumen-inpaktua minimizatzea eta ingurumena zaintza eta hobetza dutenak, etorkizuneko kutsadura murriztea edo desagerraztea barne.

Fundazioak eragiketa jakinak egiten ditu bere jardueren ondorioz ingurumenean eragin ditzakeen kalteak prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko.

Bada, egindako ebaluazioak adierazten du Fundazioak, edonola ere, ez duela ondareari, finantza-egoerari eta haren emaitzei dagokienez esanguratsua den ingurumen-izaerako ardurarik, gasturik, aktiborik, ez eta hornidurarak eta kontingentziarik ere.

4.11 Lotetsitako alderdien artean salerosketetan erabiltzen diren irizpideak

Talde bereko erakundeen arteko eragiketarik badago, lotura-maila edozein dela ere, arau orokoren arabera kontabilizatzen dira.

Egindako salerosketen xede diren elementuak arrazoizko balioaren arabera kontabilizatzen dira hasieran. Ondorengo balorazioa dagozkion kontuetarako xedatutako arau berezien arabera egiten da.

4.12 Aktiboak eta pasiboak arrunt eta ez-arrunt gisa sailkatzea

Atxikitako balantze laburtuan, saldoak ez-arruntetan eta arruntetan sailkatzen dira. Arruntetan sartzen dira Fundazioak ustiapan-ziklo arruntaren barruan saltzea, kontsumitzea, ordaintza edo egitea espero dituen saldoak. Sailkapen horrekin bat ez datozen gainerako guztiak ez-arruntetan sartzen dira.

5. Ibilgetu ukiezina

2020 eta 2019 ekitaldietan honako mugimendu hau egon da ibilgetu ukiezinaren eta haren amortizazio metatuen kontuetan:

2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldia

IBILGETU UKIEZINA	Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak	Guztira
Kostua: 2019/1/1	102.000	102.000

Eransketak	-	-
Kostua: 2019/12/31	102.000	102.000
Eransketak	-	-
Kostua: 2030/12/31	102.000	102.000
Amortizazio metatua: 2019/1/1	(102.000)	(102.000)
Amortizazioak	-	-
Amortizazio metatua guztira: 2019/12/31	(102.000)	(102.000)
Amortizazioak	-	-
Amortizazio metatua guztira: 2020/12/31	(102.000)	(102.000)
Guztirako garbia: 2019/12/31	-	-
Guztirako garbia: 2020/12/31	-	-

Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak

Fundazioak Gernikako Artekale kaleko 1. zenbakiko 1. solairuko higiezin baten erabilera du esleitura, 2004ko abenduaren 1az geroztik, eta inolako kontraprestaziorik gabe. Gernikako alkateak 2004ko abenduaren 1ean emandako ziurtagiriaren arabera, 102.000 euroko balioa du horrek, eta zenbateko hori jotzen da haren salmenta-balioarekin alderagarriena den zenbatekotzat.

Esleipen-epea hamar urtekoa denez, erabilera-eskubideak zein dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak emaitzetara egozten dira haien bizitza baliagarriaren epean. Erregistratutako kostuaren kontrakontua balantze laburtuko pasiboa jasotzen da, “Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak” epigrafean.

2019ko abenduaren 1era arteko indarraldiz egindako lagapena automatikoki luzatu zen beste urtebetez.

6. Ondare Historikoko ondasunak

Epigrafe horren xehetasunetan, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, liburutegi bat dago jasota, 55.220 euroko zenbatekoz, Fundazioaren eraketan eman zena (1. Oharra); hori ez da kontableki amortizatzen, bere bizitza baliagarri estimatua mugagabetzat jotzen baita.

7. Ibilgetu materiala

2020 eta 2019 ekitaldietan honako mugimendu hau egon da ibilgetu materialaren eta haren amortizazio metatuen kontuetan:

2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldia:

IBILGETU MATERIALA	Altzariak	Guztira
Kostua: 2019/1/1	7.351	7.351
Eransketak	-	-
Kostua: 2019/12/31	7.351	7.351
Eransketak	-	-
Kostua: 31/12/2019	7.351	7.351
Amortizazio metatua: 2019/1/1	(7.351)	(7.351)

14

Amortizazioak	-	-
Amortizazio metatua guztira: 2019/12/31	(7.351)	(7.351)
Amortizazioak	-	-
Amortizazio metatua guztira: 2020/12/31	(7.351)	(7.351)
Guztirako garbia: 2019/12/31	-	-
Guztirako garbia: 2020/12/31	-	-

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, ibilgetu materialeko elementu guztiak, erabilera jarraituko egoeran daudenak, guztiz amortizatuta daude.

8. Administrazio Publikoak

2020ko abenduaren 31ko epigrafearen mugimendua honakoa da:


Euroak	Administrazio Publiko zordunak			
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Administrazio Publikoak – Lotutako entitateak	40.000	93.120	80.000	53.120
Guztira	40.000	93.120	80.000	53.120

Atxikitako balantze laburtuaren epigrafe honek adierazten du 2020ko abenduaren 31n zer zenbateko geratzen zen kobratzeko Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzatik (hain zuen ere, dirulaguntzaren %50), kopuru hori 2021eko urtarrilaren 29an kobrau baitzen; era berean, Gernikako Udalaren dirulaguntzaren %100 ere kobratzeko zegoela jasotzen da, kopuru hori 2021eko urtarrilaren 27an kobrau baitzen (2019ko abenduaren 31ko saldoa Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaren %50i zegokion, 2020ko urtarrilaren 24an kobrau baitzen).

9. Funts propioak

Honako mugimendu hauek egon dira 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan zehar “Funts propioak” kapituluko epigrafeetan:

FUNTS PROPIOAK	Fundazioaren zuzkidura	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako soberakinak	Ekitaldiko soberakinak	FUNTS PROPIOAK GUZTIRA
2018/12/31ko saldoa	80.052	-23.736	-887	-	55.429
Eransketak	-	-	-	-	-
Murriketak	-	-	-	-	-
Intsuldaketak	-	-	-	-	-
2019/12/31ko saldoa	80.052	-23.736	-887	-	55.429
Eransketak	-	-	-	-	-
Murriketak	-	-	-	-	-
Intsuldaketak	-	-	-	-	-
2020/12/31ko saldoa	80.052	-23.736	-887	-	55.429



15

9.1 Fundazioaren zuzkidura

2020ko eta 2019ko abenduaren 31ko epigrafe honen saldoak barnean hartzen du Elkarteko Fundazioaren eraketan, 80.052 euroko zenbatekoz, emandako ondasunei (1. Oharra) esleitutako kontabilitate-balorazioa.

9.2 Erreserbak

2020ko eta 2019ko abenduaren 31ko atxikitako balantze laburuetan epigrafe honetan dagoen saldoak 2008. urtean Kontabilitate Plan Orokor berria indarrean jarri zenean Fundazioak kontabilitate-irizpidean egindako aldaketari erantzuten dio.

10. Pasibo arrunta

Pasibo arruntaren mugimenduak 2020ko ekitaldian:

Euroak	Onuradunak-Hartzekodunak			
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Onuradunak-Hartzekodunak (lotutako konpainiak)	40.000	93.120	80.000	53.120
Guztira	40.000	93.120	80.000	53.120

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, pasibo arruntaren zenbatekoa honako honi dagokio: Elkarteari ordaintzeko dagoen zenbatekoari, Elkartaren eta Fundazioaren hitzarmenari jarraiki (1 oharra).

11. Zerga-egoera

Fundazioa martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauan (Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa) xedatutako zerga-araubidearen mende dago.

Fundazioak zerga-ikuskapenerako irekita ditu azken lau ekitaldietan egindako eragiketa guztiak. Fundazioaren Patronatuaren iritziz, ez dago zenbateko esanguratsuko kontingentziarik, zerga-agintarietik ikuskapenerako irekita dauden ekitaldietan azterketa posible bat egitik sor daitekeenik.

4/2019 Foru Arauaren 9. artikuluari jarraikiz, Sozietaeten gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita daude Fundazioaren sozietaete-xeeda edo helburu espezifikoa garatzen duten ustiapan ekonomikoetatik sortutako errentak, bai eta aurrekoen lagungarri edo osagarri direnak ere, edo garrantzi gutxikoak.

Beste alde batetik, arauak salbuetsi egiten ditu laguntzaileek edo ongileek eta kanpo-jarduerak finantzatzera bideratutako dirulaguntzek ordaindutako sarreretatik eta kuotetatik sortutako errentak.

Era berean, salbuetsita egongo dira Fundazioaren ondasun higigarritik eta higiezinetik datozen errentak, bai eta ondasunen eta eskubideen erosketetatik edo eskualdatzeetatik, edozein tituluren bidez, datozenak ere.

Horren ondorioz, Sozietaeten gaineko Zergaren zerga-oinarria, 2020 eta 2019 ekitaldietan, nulua da.

12. Sarrerak eta gastuak

Jarraian, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagozkien emaitza-kontu laburtuen epigrafeetako edukia xehatuko dugu:

12.1 Ekitaldiko soberakinera egokitzako dirulaguntzak

Honako hau da 2019 eta 2018 ekitaldietako xehakapena:

Euroak	2020	2019
Administrazio Publikotik jasotako dirulaguntzak	93.120	93.120
- Eusko Jaurlaritza	80.000	80.000
- Gernika-Lumoko Udalak	13.120	13.120
Guztira	93.120	93.120

12.2 Dirulaguntzak

2020 eta 2019 ekitaldietako atxikitako emaitza-kontu laburtuko epigrafe honetan jaso da Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Elkarteak aurkeztutako jarduera-programa garatzeko Fundazioak egindako ekarpena.

13. Fundazioaren jarduera. Ondare-elementuak xede propietarako erabiltzea. Administrazio-gastuak


13.1 Fundazioaren jarduera.

Zuzendaritzaren iritzia da Fundazioak garatutako programa bakarra sozietaearen xedea lortzeko behar diren jarduerak egitea izan dela.

Fundazioak honako baliabide ekonomiko hauek lortu ditu 2020 ekitaldian zehar —horiek finantzatu da Fundazioaren jarduera nagusia—:

2020		
SARRERAK	Aurreikusia	Gauzatua
Sektore publikoko dirulaguntzak	93.120	93.120
LORTUTAKO SARRERAK GUZTIRA	93.120	93.120

Bestalde, 2020 ekitaldian, honako baliabide hauek erabili dira Fundazioaren jarduera nagusia gauzatzeko:



17

2020		
GASTUAK	Zenbatekoa	
	Aurreikusia	Gauzatua
Dirulaguntzak	93.120	93.120
GUZTIRA	93.120	93.120

Honako hau izan da Fundazioak 2019 ekitaldian zehar egindako jardueraren onuradun edo erabiltzaile kopurua:

2020		
MOTA	Kopurua	
	Aurreikusia	Gauzatua
Pertsona fisikoak	1.350	1.350
GUZTIRA	1.350	1.350

13.2 Ondare-elementuak xede propietarako erabiltzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen (ekainaren 2ko 9/2016) 29.2 artikuluarekin bat, Fundazioak bere xedeak gauzatzeko erabili beharko du Fundazioaren emaitza-kontu laburtuko sarreren %70, gutxienez, kontzeptu guztietan lortutakoena, sarrera horiek lortzeko egin behar izan dituen gastuak kenduta, fundazioaren xedeak betetzeari buruzkoak izan ezik. Betebehar hori betetzeko epea emaitza eta sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieratik ekitaldia itxi eta hurrengo hiru urteak igaro artekoa izango da.

Errenta eta sarrera garbiak zehazteko, ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena) 21. artikuluan finkatutako irizpideak aplikatzen ditu Patronatuak.

Ondorio horietarako, 2020 eta 2019 ekitalditarako, errenta eta sarrera garbien zenbatekoa 93.120 eurokoa da bi datetan, jarraian adierazi bezala kalkulatuta:

	Euroak	
	2020	2019
Sarrera gordin konputagarriak		
Ekitaldiko soberakinera egokitzako dirulaguntzak	93.120	93.120
Soberakin garbia	93.120	93.120

2020 eta 2019 ekitaldietan fundazioaren xedeak gauzatzeko erabilitako funtsak 93.120 eurokoak dira bi datetan, honako xehetasun hauekin:

	Euroak	
	2020	2019
Dirulaguntzak	93.120	93.120

Fundazioak lortutako sarrera guztiak erabili ditu bere fundazio-xedeetarako.

13.3 Administrazio-gastuak

Fundazioak aitortutako datuen arabera, ez dago administrazio-gastu espezifikorik 2020 eta 2019 ekitalditarako.

14. Itxieraren ondorengo gertakariak

2019 ekitaldia itxi zenetik Fundazioaren Patronatuak urteko kontu laburtu hauek egin zituen arte, ez da gertatu eta ez da ezagutu aipatzeko den gertakaririk.

15. Alderdi lotuak dituzten saldoak eta eragiketak

15.1 Alderdi lotuak dituzten saldoak

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, honako hau da erakunde lotuen zordunen eta hartzekodunen saldoen xehetasuna:

	Euroak			
	2020		2019	
	Zorduna	Hartzekoduna	Zorduna	Hartzekoduna
Eusko Jaurlaritza	40.000	-	40.000	-
Gernikako Udalak	13.120			
Gernika Gogoratuz Elkarteak	-	-53.100	-	-40.000

15.2 Alderdi lotuak dituzten eragiketak

Hona hemen Fundazioak 2020 eta 2019 ekitaldietan alderdi lotuekin egindako salerosketa nagusien xehetasuna:

	Euroak			
	2020		2019	
	Ekitaldiko soberakinera egokitako dirulaguntzak	Dirulaguntzak	Ekitaldiko soberakinera egokitako dirulaguntzak	Dirulaguntzak
Eusko Jaurlaritza	80.000	-	80.000	-
Gernika-Lumoko Udalak	13.120	-	13.120	-
Gernika Gogoratuz Elkarteak	-	-93.120	-	-93.120
GUZTIRA	93.120	-93.120	93.120	-93.120

15.3 Patronatuko kideen ordainsariak

2020 eta 2019 ekitaldietan zehar, Patronatuak egin ditu Goi Zuzendaritzako lanak, eta ez du jaso ez sortu inolako zenbatekorik soldata, ordainsari, dieta edo bestelako ordainketen kontzeptupean. Halaber, 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, ez zegoen emanda

19

mailegurik edo krediturik, eta ez zegoen inolako betebeharrik kide horien pentsio edo bizi-aseguru gisa.

16. Bestelako informazioa

16.1 Aldaketak gobernu-organoetan

2020 ekitaldian zehar, zenbait aldaketa egin dira Fundazioaren Patronatuan, Itxaso Bengoetxea Larrinaga sartu baita Irune Ondarzaren ordez, 2020ko irailaren 8an hil baitzen.

2019 ekitaldian zehar, zenbait aldaketa egin ziren Fundazioaren Patronatuan, Patronatuko kide izatera igaro baita Jokin Garatea Gerrikagoitia jauna. Deustuko Unibertsitatearen ordezkaritzaren aldaketa eguneratu da, Eduardo Ruiz de Vieyzen ordez Gorka Urrutia sartu baita.

16.2 Hirugarrenekin konprometitutako bermeak eta beste pasibo kontingente batzuk

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, Fundazioak ez du emanda finantza-erakundeen edo hirugarrenen abalik.

17. Ordainketa-gerorapenei buruzko informazioa

Uztailaren 5eko 15/2010 Legean (abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duena, merkataritzako eragiketen berankortasunaren aurka borroka egitek neurriak ezartzen dituena) eta Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institituaren (ICAC) 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenean (merkataritza-eragiketetan hornitzailleei ordaintzeko batez besteko epearri buruz urteko kontuen txostenean sartu beharreko informazioari buruzkoa) xedatutakoarekin bat, 2020 eta 2019 ekitaldiak ixteko unean ez dago hornitzailleei ordaindu beharreko saldorik, ekitaldien itxieran ordaintzeko legezko epetik gorako atzerapenik duenik.


**FUNDACIÓN GERNIKA GOGORATUZ
GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA**

Urteko Kontu Laburtuen Memoria

Sinatua:



José María Gorroño Etxebarria jauna
(Patronatuko presidente)



María Oianguren Idigoras andrea
(Gernika Gogoeratuz Bakearen aldeko
Ikerketa Zentroko zuzendaria)

